

Nafarroa Karria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abenduaren 2a / IV. urtea / 155. zenbakia

Izotz beltzeko erabakia

Danone esne-enpresak Iraizotzen (Ultzama) duen lantegia kentzeko erabakiak ingurua astindu du, trumoiak nola lurra, eta kezka handia sortu. Duela 26 urte ezarri zenetik Ultzamarako ezezik inguruko alderdiendako ere bizi-aseguru izan da ia, atxiki egin duelako jendea, bizi-maila itxuroso askoa eman. Etekinak ugari izanik inork ez zuen halakorik espero, eta 'Nafarroako Suitza' deitu izan den inguru honetakoek beltz ikusten dute etorkizuna, Iraizotzen, erein-bezperan izotz beltzak lurra gogortu izan bailuen.



JOXE LACALLE

Errueda sila

Kafea hartzen ari ginen. Ostirala. Asteburua aurrean ikusteak ematen duen lasaitasunez zebilen solasa. Fundamendu gehiegirik gabe egiten genuen jauzi gai batetik bestera. Infanterena ere aipatu genuela ustedut. Hortan ikusi nuen lagun bat mahai gainean zeuden tabako paketeek atzean daramaten seilu antzeko aori hartzen. Mahaikoak gutxi ez izanda lurretik ere hartu zuen bat edo bat. Ez ikusiarena egin nuen baina minutu bat-ganerako lehertzeaz nengoan. Eman, eman nizkion buelta batzuk zein ote zen arrazoia ezin asmatuz. Lurretik beste pakete bat hartu eta seilua kendu zionean ezin izandu nion eutsi eta besteen arrazoitan sartzeak es-

katzen duen tonu atsegin eta errukiorrean galdetu nion: 'Zerengatik ari haiz hori biltzen?' Tonuak huts egin zidalako edo mahaikideak ere gure laguna ikusita zertan ari zen jakiteko irrikitan zeudelako edo, tabernako apezka den telebistak bakarrik hautsi zuen isiltasuna erori zen mahai gainera. 'Zer hau?' lagunak: 'Tabako paketetako seilu horiek' neronek. 'Bada holako milioi bat bildu ezkerro Tabacalerak errueda sila bat ematen dik'.

'Errueda sila bat?' mahaikide askok. 'Bai errueda sila bat' besteak: 'hau dirua duk eta horrelako milioi batekin ematen ditte eta nik zaborrara bota beharrean bildu egiten ttet'.

Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE



Ez erretzaileek ez zekiten nola interpretatu Tabacaleraren eskeintza zoragarria, erretzaileek zigarro izeki berriak ematen duen segurantzaren atzean parapetatu ziren, beharbada gure lagun horrek egiten zuena zuritze-ko paratu zuen indarrarengatik uzkurtoak edo, harik eta bizpahi-

ru begitara begiratu eta farrez hasi ziren arte. Errueda sila bat... errueda sila bat... eta algara egin zuen mahai guztiak.

Batek lehendabizi errearazi eta gero usteldu antzean dagoela erretzailea errueda sila bat eskeintzea ez dela makala esan zuen, beste bati, Tabacaleraren jokabideagatik erabat sumindurik, zinismoa eta lotsagabekeri izugarria iruditu zitzaion, nola ez zioten behar zuenari errueda sila ematen tontakeritan ibili beharrean: beste batek, ez erretzailea noski, Tabacalerak gizalegea ere bazuela argitu zuen ze gutxienez tabakoaren prezioekin sangarazten zaituzte baina zahartzarorako erremedioa eskeini ere bai. Pa-

kete seiluak biltzen dituen gure lagun horrek orde, sumindu antzean, eztabaida merkeetan sartzen ari ginela gogoratu zigun, bestela zaborrara joanean zirela seilu horiek eta biltzea errueda sila edozeinentzat izanda ere, botatzea baino askoz hobe zela. Guk baietz, baina Tabacaleraren azala izugarria dela, eta behin hasi ezkeror hobe dela behingoan akabatu errueda silan lana ematen ibili beharrean eta geroz, errueda silaren orde guk behintzat nahiago dugula hileta pollit bat, zinezko zerraldo eta pare bat koroia ederrez hornitutakoa. Eta behin hasi ezkeror zergatik ez meza eder bat ere, sinistu ez baitugu sinisten baina badaezpada ere.

ERAKUSKETAK



Artista napparren erakusketa berezia izanen da abenduaren 19a arte IRuñeko Gotorlekuan, Polvorin aretoan. Sare HIESaren kaltetuentzat sortutako Elkar-teak antolatuta, Nafarroako 30 artisten obrak daude ikusgai. Ordutegia hau da: lan egunetan 18.30etatik 20.30etara eta jai egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30etara.

'Hegoalderen bila' izeneko erakusketa ikusgai dago Gotorlekuan, Armen aretoan. Medicus Mundi GKEk antolatuta, Hirugarren Munduko nazio ezberdinetako bizimodua erakusten da bertan. Ikusteko ordutegia hau da: lan egunetan 18.30etatik 20.30etara eta jai egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30etara.

Baztango argazki zaharren erakusketaren azkeneko astea izango da hau Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Argazkiak bailara osoan berreskuratu ondoren ikusgai daude bertan.

ANTZERKIA



'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izeneko antzezlan-taularatuko du asteburu honetan Iruña Pequeño Teatro taldeak Lerin eta Lodosan. Igandean, abenduak 4, Leringo pilotalekuan ariko dira, arratsaldeko 6.00etatik aurrera, eta astelehenan, abenduak 5, Lodosako Kultur Etxean plazaratuko dute.

Trokolo antzerki taldeak 'Colombina enamorada' izeneko obra taularatuko du bihar larunbata, abenduak 3, Berbinzanan. Udazkeneko Bira programazioaren barruan, 7.00etan hasiko da, San Isidro Elkartean.

BESTELAKOAK



Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, abenduak 2, Elizondon. Bertso afari moduan antolatuta.

'Drogen legalizazioa' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du gaur ostirala, abenduak 2, Iñaki Markez mediku sikiatruk. Hautsi taldeak drogen legalizazioaren alde antolatu duen kanpainaren barruan, Tuterako Castel Ruiz Kultur Etxeko lokaletan izango da, 8.00etatik aurrera.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Durangon 'Pyrenaica'

Hurrengo astean dugu Durangoko Azoka horgetu, Bizkaian, irakurle grina asebetetzeko. Nafarrak ugari izango dira edizio honetan, Pamiela eta Txapalaparta argitaletxeek, besteak beste, nobedade ugari aurkeztu dituztelako, bereziki Curia kalekoak.

berak aurkeztuko dituen 'Bailar el caos' Juan Antonio Urbeltzen saioak jakinmina sortu du, Aingeruren beraren 'Lur zabaletan' ipuinak edota Tere Irastortzaren 'Manual devotio gabecoa' poesia liburuak bezala.

Ederrak denak. Baina ni,

ranjo edo Cervinoko igoerarik ederrenak, behintzat lehendabizikoak.

Jakin berri dudanez, zuzen-zuzenean aldizkariaren zuzendaritzara jo beharko da erosi ahal izateko, baina Durangon izanez gero, arrakasta osoa izango du bildumak, ez bairik



Aingeru Epaltzaren 'Ur uherak' nobelaren bigarren argitalpena —Pello Lizarralderen 'Sargori' ipuin sorta ederrea bezala—, Gil Beraren saiakera berria, Olasagarreren itzulpena, Victor Morenoren kritikari buruzko kritika, Martin Indaburu idazle nafarraren 'Haizegua/Viento Sur' liburu zahar-raren Julio Caro Barojaren edizioa...

Horiekin batera Pamielak

hurbildu izatera, gogobizitz itzaroten ari naiz bilduma batengatik hurbilduko naiz: 'Pyrenaica' aldizkariak argitaratu dituen ale zaharren bildumarengatik, hain zuzen ere. 1926tik 1935 bitarteko aleak bildu dira bertan, faksimil gisa. Euskal mendigoizaleen bizipenak eta gogoetak ederki jasoak daude ale horitu horietan eta hortik irakurri ahal izango dira Kilimanjaro, Na-

gabe. Bertan inoiz egon denak badaki ongi aski, bazkari ona bezala begietatik sartzen direla liburuak Urkiola azpian, eta ez dela zaila izaten inoiz pentsatu gabeko liburu esku artean dugula bertatik ateratzea. 'Pyrenaica' bilduma ez balitz, Piriniotako tontorren bigarren alea aurkeztuko du Elkarrek. Bada aldea, baina bestea izan ezean konformatu egin beharko.

ASTEKO PERTSONAIK



Patxi Eugi
Pilotaria

Batzurentzat ustekabea, besteentzat espero zitekeen emaitza, guztiek izan dute zer esan Patxi Eugiren garaipenaren ostean. Ongi, oso ongi hasi zen lehen kanporaketan Belokiren aurkako partiduan, eta garza bera egin zuen Unanueren kontra. Gehienek, ordea, bere martxa bikaina Retegiren kontra jokatu zuen partiduan hautsiko zela zioten; baina ez, agoiztarra serio aritu zen, kontzentraturik eta finalera iritsi zen maisua kanpoan utzi eta gero. Hala ere, ez zuen, hasieran behintzat, lan erraza Errandonea gainditzeko, fin ari baitzen beratarrak. Azkenean, uste baino errazago irabazi zuen Eugik, bederatzita tantuko diferentziarekin. Gazteak ari dira, bai, aurrea hartzen, beti gertatzen den moduan.



Aingeru Epaltza
Idazlea

Kalean da jadanik Aingeru Epaltza idazlearen 'Lur zabaletan' izenburuko lana, gazteendako foiletin batetik abiatuta, abentura ezberdineko istorioa kontatzen duelarik. Honekin batera, 'Ur Uherrak' orain dela hiru urte atera zuen liburuaren bigarren edizioa bota dute egun hauetan, lehena agortu baita. Liburu berriaren idazleak bere gazte irakurketak eta baita ikusitako abentura filmeak ere isladatu nahi izan ditu. «Nire ustez gure herriak ez du epopeia handirik ezagutu eta ezagutu dituenak Ameriketara joandako artzainenak izan dira. Liburu honetan Ameriketara joaten den gazte baten istorioa kontatzen dut». Asisko Urmenetaren marrazkiekin hornitua, dagoeneko salgai dago liburuteki guztietan.



HERRI KIROLAK



Herri Kirol Errekor Jaialdia

ospatuko da igande honetan, abenduak 4, Donezteben, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta. 5.00etan hasita, ia modalitate guztientzako lekua izanen da, helburua Nafarroako edo Munduko errekorrak gainditzea dela. Nafarroako errekorra gainditzeko saiatuko dira gazte hauek: Pikabea anaiak arpanarekin, Txaro Zubieta kozkor bilketan, Lourdes Telletxea eta Patxi Bergara txingetan, Miguel Anjel Etxarte lasto altxatzen, Jose Antonio Loiar ingudearekin, Patxi Larretxea harriak jasotzen, Berako Gure Txokoa eta Uztama taldeek proba konbinatuan, Mikel Mindegia eta Donato Larretxea aizkorarekin. Soka-tira erakusaldia ere eskainiko dute Berako Gure Etxea eta Berriozarko taldeek. Munduko errekorrak hausten saiatuko dira, Jose Bikondoa aizkora alturan eta Iñaki Perurena harri borobilarekin. Lehenak, 10,30 metrotara igotzea lortu zuen iaz, eta hori gainditzen saiatuko da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Heleta


Zaldia plazaren jauna

LUTXI FOURCADE / HELETA

Urtero bezala, Santa Kattalinaren besta ospatu dute Heletako plazan, zaldi eta pottoken feria-ekin, joan den astean. Ohitura ez da gaurkoa, lehen feria egin baitzuten 1750ean, Luis XVI. Frantziako errege zenean. Urtez urte, gero eta arrakasta handiagoa ezagutu du feria, bere fama Iparraldeko mugaz gainetik pasatuz. Garruzeko feria bezala, agorrilaren hasieran, Heletakoak biltzen ditu azaroaren bukaeran kabale erosteko gogoia dutenak baita kurios andana bat ere.

Bi egunez ospatzen ohi da feria baina aurtengo edizioak baieztatu du joan den urteko joera, bigarren egunean Santa Kattalinakari kabale gutxi agertu baita. Lehen eguna zaldi eta pottokoi dedikatua den bezala, bigarrena behi eta ardiarena da. Baina Heletako plazaren itxura nahiko tristea zen joan den ostira-lean, laborari gutxi ekarri baitzuten aberea saltzeko. Gaixo Kattalina, bere besta ospatu baita bezperan aurten ere...

Alta, ostegunarekin plaza mukurru bete zen zaldi, behor eta pottokaz. Goizetik, laborari frango bilduak ziren kabaleen begiratzeko, mendian zeuden artzainen berriak jakiteko edo kafe-ttott bero-beroa hartzeko lagunekin. Partaide gehienak ondoko herrietatik etortzen badira ere, urrunagotik etorri ziren batzuk. Biarno eskualdetik edo Landesetatik, bistan da, baina ere Bordele, Paris edo Britainiatik.



Giro ona izan zen Nafarroa Behereko feria garrantzitsu honetan.

LUTXI FOURCADE

Kanpotarren presentzia nabari zen toki batzuetan, frantsesa edo gaskoina entzunez euskararen orde.

Kalaka frango eskuin eta ezker, kabaleen kalitatea azpimarratzeko edo jandarmen seriositasunaz trufatzeko, baina usaian bezala tratuak ahopetik egin dira, plazan edo ostatuan, salmenten prezioak inolaz ere zabaldu gabe. Alta, erosle gutxi ziren aurten salgai ziren 1.200 buruentzat. Mihi gaixtoek zioten Garaziko tratulari famatu batez aparte ez zela beste eroslerik ere.

Zer nahi gisaz, aurtengo pre-

zioak apalak izan arren, tratuak egin dituzte gehienek egunean zehar kabale nahiago baitute saldu. Zaldi kumeak 9 eta 11 libera kilo artean saldu ziren, haragiko zaldiak 7 eta 8 libera arte abiatu direnean. Azpimarratu behar da mota horretako zaldi gutxi zegoela, primaderako ferian nonbre handiagoan agertzen ohi baitira. Zelako zaldi batzuk 16.000 eta 17.000 liberatan joan dira. Pezetak eta lirak ezagutu dituzten beharpenak ondorioak ukan zituela aurtengo feriako prezioentzat azpimarratu zuten sal-tzaileek. Erran behar da jabez al-

datzen diren zaldi batzuek Frantziako iparraldeko bidea hartu badute ere, gehienak, aldiz, Espainia edo Italiarantz abiatu direla.

Pottoka frango ere ikusgai ziren plazan, nahiz eta batzuk ez ziren salgai zaldi maitaleen biltzeaz baliatu baitzen Pottoken Elkartea erakusteko 20 bat arrazako pottoka. Pottoken prezioak nahiko desberdinak izan dira: gazte batzu joan dira 800 edo 1.000 liberatan; arrazako pottokak, aldiz, erosi ditu elkarteko lehendakariak 2.000 eta 2.500 liberatan.

Baztan

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Zenbait aldaketa juradoak hautatzeko

Baztango Ordenantzen barruan herrietako juradoak hautatzeko hainbat aldaketa onartu zituen Biltzar Nagusiak astearte honetan. Horien bidez Euskal Herrian bakarra den erakunde honen funtzionamendu egokiagoa lortu nahi zen, garai eta egoera berriei egokitu ondoren. Aldaketak ez dira funtsezkoak izan, baina bai funtzionamendu eta kexu batzuk hobetzekoak.

Jakina denez, Baztan, nahiz eta udal bakarra izan, hamabost herritan banatzen da, eta oraindik gordetzen da antzinako antolamendua, udal administrazioa gain. Horri Biltzar Nagusia deitzen zaio, eta bertan udal zinegotziak, herrietako juradoak edo alkateak, koartel —Baztango lau alderdiak— bakoitzeko ordezkari bana, eta bi mendizain biltzen dira. Euren eginbehar nagusia Baztango herrilurrak

—guztien % 85— administratzea da.

Juradoak aukeratzeko herrietako batzarrak daude, eta horiek dira egitura honen guztiaren oinarria. Bertan, duela hamabost urte arte, etxe bakoitzeko ordezkari bat zegoen, baina ordutik aurrera 18 urtetik goitikoek parte har dezakete. Batzarrean aukeratzeko dira auzolanak eta herrietako hainbat gai. Asteartean egin zen Biltzar Nagusian hautaketari buruzko aldaketa zenbait onartu ziren.

Esate baterako, hemendik aurrera pertsona batek ezin izango

du bi postu aldi berean izan, hau da, ezin izango da zinegotzi bat juradotako aukeratu. Halaber, hautagai bakarra izanez gero ez da egingo hautaketa, eta herriko juradoa izateko ez da nahikoa izango bertakoa izatea, bizitzeari derrigorrezkoa izango baita.

Beste aldaketa bat hautaketari buruzkoa izango da. Orain arte aho batez edo eskua altxatuta hautatzen zen juradoa, baina hemendik aurrera botoen zenbaketa egingo da, eta horretarako mahai bat osatuko, juradoa eta bi kargodunekin. Kargodunak dira juradoak herrietan dituen laguntzaileak. Hautagaiek euren ize-

nak agertu beharko dituzte mahaiari, eta bozketa egiteko goizeko 9etatik arratsaldeko 5ak arte zabalik egongo da. Inor aurkezten ez bada ohiko egunean, hau da Eguberri aitzezineko igandean, handik hamabostera egingo da beste hautaketa bat, eta hautagairik izan ezean, Biltzar Nagusiak erabakiko du hilabeteke epearen barruan.

Aldaketen bultzatzailetako bat izan den Martin Gardek azaldu duenez, erreformak batzarren egitura hobetzeko aurkeztu ziren. «Kontuan hartu behar da gaur egun duela hamabost urte baino hiru aldiz handiagoak direla batzarrak, eta eskuz hautatzeko arazo aunitz baziren. Halaber, batzuetan aukeratu izan da lan hori nahi ez zuen jendea, eta zerrendekin hori konponduko dela uste dugu». Izan ere, juradoen lanak buruhausteak besterik ez du eman ohi, aurrekonturik ez duelako bere lanerako.

Navarreriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Bonbilak

Betiko tabernan betiko orduan elkartzen garelarik, irribarretsu heltzen da beti, kon-tatu dioten azken txistea koa-drilakooi jaulkitzeko irrikan. Joan den egunean, baina, triste eta kopetilun bertaratu zen. Hitzontzi isilezina izaten ohi da, eta egun horretan, ahopeka «Aupa» motela bota ostean, mutu geratu zen, ezerezari so. Ardo baso-erdiak zurrustada bakarrean irensteko besterik ez zuen ahoa ireki, sekulako le-gatza harrapatzeko xede argi eta garbiarekin.

Tabernako ardo erreserba agortzeaz zegoela, bat-batean aukitit altxatu eta zanbuluka tabernatik atera zen. Bertikal-tasunari ezin eutsi, espaloian aitzina hamar bat urrats eman eta gero, metatutako zakar pol-tsa batzuen ondoan eseri-bota zen. Horien artean maniki baten besoa topatu zuen, eta horri serio-serio begira, «Gingel bells, Gingel bells...» abesten hasi zen. Supituki, plastikozko besoa eskuartean hartu, eta



karrika alde batetik bestera zeharkatzen zuten bonbila apaingarrien aurka bota zuen. Hiru bonbila hautsi zituela ikusi zuelarik, sekulako pozez besoa jaso eta «Gora Xabierko Frantziskoren beso ustelga-bea!» oihukatu zuen.

Segituan, betidanik Bronce peñako kidea balitz bezala saltoka dantzan hasi zen, «Gingel bells, Gingel bells» abesten zuen bitartean. Kalejira bakar-tian, bidean topatu zituen Eguberrietako bonbila apaingarri guztien aurka bota zuen nafarron zaindaria omen zen besoa, udalaren zaindaria, udaltzaingoak alegia, *in fraganti* harrapatu eta gaua ziega ilun batean pasatzera eraman zuen arte. Poliziak bera zigortu zuen. Errua, baina, ez zen berea, eta bai, aldiz, inolako gupidarik gabe Eguberrietako bonbila apaingarriak ohi baino hilabete lehenago jartzea erabaki duenarena.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

«Aste honetan Ultzamako jendea aurpegia aldatu egin zaio. Eta barrukoa ikusten ez zaigula kontuan hartuta, beste...». Antonio Zigandak, Ultzamako Kirol eta Kultur Patronatzailearen burua, garbi azaldu du Danone enpresaren itxieraren iragarpenak alderdi osoan sortu duen egoneza eta amorrua. Ingaruak egun batetik bestera kolore ere galdu duela diote batzuek, berde izan beharrean grisagoa dela. Ez da harritzekoa, berria trumoi bat buru gainean somatu baitute denek. Egundak izotz igaro badira ere, ez dute oraindik burua garbitu.

Inork ezin du azaldu 6.000 milioi pezetako etekinak dituen enpresa batek produkzio eta kalitate altuena zuen zonaldea uzteko hartu duen erabakiaren zergatia. Entzun dutena baino ez dakite, ezerk ez baitzuen iragarri komunikabideetan joan den astean irakurri zuten. Heldu den astean joatekoa da bikote bat New Yorkera, enpresak berak egindako zozketa bati esker, eta duela bi hilabete bi langile finko egin zituen enpresak. Iraizotzko lantegiak kalitate sari franko zituen bereganatuta, esnearen kalitatea oso altua zen, inguruko erakundeen jarrera aparta zen —ura, argia edo lurrak eskuratzeko inolako arazorik ez, abantaila guztiak, konpetentzia eskasa... Baina multinazionala. Hori ez zuten kontuan hartu, antza.

«Oraindik ere ez dugu asimilatu» dio Mikel Alberro enpresako langileen batzordeko burua, «eta gaur (asteartea) egin dugun langileen batzarrean zaila izan da argitzea aurrerantzean zer egin behar dugun. Egoera larria da eta animoak serio daude, horri buruz bakarrik hitz egin behar da. Tristeak dira hitzak».

Denen buruan dago antzeko gertaerak izan direnean beste tokietan gertatu dena: inguruaren beharrekada etengabea. Gertatu gero, hemen inon baino gehiago. Duela 26 urte ezarri zenetik Danone lantegia Ultzaman —eta baita Anue, Odieta, Lantz eta Basaburuan ere— bizitza aserua izan da. Horri esker bertan ez zen gertatu Imotz edota Basaburuan bertan azken hogeita hamar urteotan hirirantz izan den jende jarria, eta horri esker abeltzain azienda asko inbertsioak egin dituzte eta errentagarriak dira gaur egun. Ez da Danone esne gehien biltzen duena —Iparlat nagusi da Nafarroan, produkzioaren % 45 jasotzen baitu— baina 200 abeltzainek berari ematen diote egunero jetzitakoa.

Ultzama eta Basaburua inguruan dauden berrehun azienda hauetarako askok dezente zor diote Danoneri, eta lantegia bertan egotea oso garrantzitsua izan da horretarako. «Industria transformatzailea hemen izatea» azaldu du Lourdes Indaburu EHNE



Ultzamako Iraizotz herrian duen lantegia ixteko Danone enpresak hartu duen erabakia inguru astindu du bortizki. 170 langilekin, enpresa 'Nafarroako Suitza' deitu izan duen eskualdearen euskarrira izan da azken 25 urteotan, eta berari esker bizi-mail ezohikoa izan dute bertakoek. Orain, ixten bada, latza izango dute etorkizuna, eta erantzunaren esperoan daude asko.

Ultzama, aurpegia aldatuta

sindikatuak, «lotura ikaragarria da abeltzainendako, bertan ikusten dutelako, partaide sentitzen direlako. Gainera, Nafarroa industriarik gabe gelditzen ari da, eta hori nagiz larria da».

Zer gertatuko den aurrerantzean? Batek daki. Hori da, askoren ustetan, galdera garrantzitsua. Nola erreakzionatuko dute ultzamarrek? Erantzuna «oso bortitza» izan daitekeela uste du Angel Garcia Iraizotzko idazleak. «Dena joango da eskailera batean bezala, hasieran zer borroka eta mobilizazio dauden, horren arabera izango da gero langileen inguruan erantzuna. Egoera hasieran paratu dutena bezain latza baldin bada, ultzamarren erantzuna zein izan daitekeen ezin du inork ere jakin».

Izan ere, lasai fama baitute ultzamarrek, beraiek ere horrela aitortuta. Enpresak berak ingurari eman zion lasaitasunak —ez da bertan inolako arazorik izan, fin ordaintzen dute, eta kalitatea beti onartu egin dute— lasaitu egin zituen baita ultzamarrek ere, eta mobilizazioekin «ohitu gabeak» direla aipatzen dute askok. «Nekazariak edo

arte? Zenbaitek azaldu du konfiantza duela Danonen, baina beste batzuk, Autzako Jesus Mari Villanueva abeltzainak bezala, ez dira fio. Ehun behi izanik inbertsio franko egin dituzten urteotan enpresak eskatzen zizkion kalitate neurriak eman ahal izateko. «Langileendako gogorra, baina guretzako ere oso latza izango da lantegia ixten bada. Esan digute esnea erosiko ditugula, baina azkenean utziko gaituzte». Nahi izanez gero izango lukete nori saldu —Iparlat, Cleasa—, baina langileekin batera egon behar dutela dio Villanuevak.



Ez dira denak iritzi berekoak, baina, abeltzainen interesak defenditzearen aldeko hitzak aditu baitira dagoeneko. Horren atzetik bada enpresaren estrategia ikusten duenik, Mikel Alberro LAB sindikatukoak kasu. «Abeltzainei esan diete esnea erosiko ditela aurrerantzean ere, baina jendea banatzeko. Nola eraman go dute esnea Bartzelonara?». «Abeltzainak, orain arte, bakarrik arduratu dira kalitateaz» berretsi du Indaburuk, Zigandak, «eta borrokarako prest gaude». Horretan jende guztiaren laguntza beharko dutela garbi dago, ez hain garbi, ordea, izango duten. Hasteko, gauzak aurrera eramateko lider baten beharra azpimarratu dute ia denek, eta lider hori inon ez dela ikusten batzuek. Bestalde abeltzainei esnea erosiko zaiela ziurtatu du enpresak, baina noiz

Garbi dago inork ez duela atzera nahi beste lantegietara joateko, baina ia denek garbi dute ere lantegia itxi, itxi egingo dutela. «Multinazional bat horrelakoa da: etortzen da, eta edozein momentuan alde egingo du». Enpresaren barruan ere ez dakite ia

Iraizotzen Danone enpresak duen lantegia. Eskuinean, Jesus Mari Villanueva, Autzako bere ikuluan. Behean, Mikel Alberro LABeko sindikalista eta agure talde bat Iraizotzko plazan. JOXE LACALLE

nondik jo. «Komunikabideek garbi esan dute erabakiak ez dela atzerabiderik» dio Alberrok, «eta guk ere zaila ikusten dugu, aukera ere apenas antzeman dugu eta. Baina ez dugu ezta pentsatu ere egin nahi zer gertatuko den hemen ixten bada». Zer eragin izango duen inguruan? oso latza, baina ez bakarrik ekonomian baita gizarte eta kultura aldetik ere bai. Danone izan da inguru honen ardatza, eta kultura eta aisialdiaren garapena ere hortik etorri da. «Langileak eta ezin seme-alabak izan dira eskaintza kulturala aprobetxatu dutenak» azaldu du Zigandak, «beraiek zutelako astia». «Langileak askoz ere kontzientziatuta gaude hainbat gauzetan», dio Mariezkurrenak, «eta lantegiko mundua, orokorrean diot, zabalagoa da».

Hurrengo egunak esanguratsuak izango dira ez bakarrik langileendako, baita Ultzamarrendako ere, garapena eta ongizatea —'Nafarroako Suitza'— eraiki zutenak alde egiteko erabaki sendoa azaldu delako, maitatua izan arren. Eta senarra inoiz baino bakarago geldituko da orduan. «Oso bakarrik bizi gara» dio Puri Etxeberria ikastetxeko gurasoen elkarteak, «ez gara elkarrekin ibili inoiz, eta gure egoera onari esker, bakoitzak bere arazoak konpondu ditu. Gero etorriko den bakardadea latza izango da. Baina akaso baliagarria izango da gizarte pixka bat mugiarazteko, esnatuarazteko, ikaragarriko imajinazioa beharko da eta, edo beharko dugu. Beraz, triste bada ere, honek bultzada emateko baliagarria bada...».



Aupa Iñaxio!

● Galdu diguk, galdu! Halaxe erranen ziken Indurainek berak ere Ogetakoa jokatu izatera. Gutasun horretan. Galdu diguk, Iñaxio! Nola arraio sartu dizkigu zazpi sake horiek Agoizko seme xauliak? Behar zen tokian jarri, postura xuxenean, gorputza pixko bat aintzinerak makurtu, galtzei tira belauen gainean, Patxiri begiratu nola hasten zen lasterka, nola okertzen zen pilotari emateko, pilotaren bidea

segitu, nola josten zuen parera, nola heldu zen, frontoia erortzen bazen ere bertze deusi errepara



ratu gabe, eta orduan besoa luzatuz sartzen geniken ezkerrean, non behar zuen hantxe, matematiko... taka! eta ezin altxatu pilota. Ezin eraman txapa gainera.

Zazpi sake, eta zazpi aldiz zazpi, ...zazpiehun beso-eskuk ezin bueltatu harri koxkor hura. Ez huku sumatzen besoa luzatzean, hirearekin batera bertze zazpi milarenak nola bilatzen zuten pilota? Gu ere han baikin hirekin. Indarka, izerditan, bulkaka, genuen guzia emateko prest. Ez huku sumatzen hainbertze lagun kantxan, hainbertze hire zangoan, hire bizkarrean...? Akaso sobera, eta traba egin geniken guk. Horixe!, guk traba egin!

Aaaatxxx! Dicoos! Hortzak estutu, hitzak iretsi, pilota harrika bota! Bageniken ilusioa. Esperantza ere bai. Hire kaskoaren gainean txapela ikusi nahi guk. Dixo-sozko kapelo txar hori! Ongi hasi gaituk lehenbiziko tantotetan. Sobera ongi. Eta partidua irabazten gaituk, genuela ikusi dugunean, tak! nerbiostu! Denek batera jo nahi trapu tranposo hura! Sake gaizto zitala ikusi eta denek lagundu nahi. Baita nik nere esku zuri, nere esku beratx hauekin ere. Eta ezin.


Galdu diguk. Arretxeren kontra bezala. Baina hi, a ze urtea! Beheitik hasi eta kaxka, kaxka, kaxka... hi fi-paletara sartu. Harrapazak hori! Aurtzen hik ez bertze inork ez dik egin hori. Eta gu ere hor ibili gaituk, indarka, izerditan, bulkaka... eta traba egiten.

Sartutako zazpi sakeak bezala, zazpi urte joan dituk bertze periodiko batean orduko txapelketaren gainean lerro batzuk eskribitu nituenetik. Zazpiehun partidu ere bai, seguro aski, eta zazpi mila tantotik goiti egin, gaurgero. Bertze horrenbertze aldi ilusioaren kandelak biztu egin duk gure baitan. Bertze horrenbertze pozaldi eman dituguk hire hatzpar horiekin.

Aupa Iñaxio!, segi horrela... bederen bertze zazpi urtez!



XAKEAN



Nafarroako Taldekako Txapelketako Bosgarren Jardunaldiko partida, 1.994.eko azaroaren 12an jokatua.

J.J. Mindegia, 2.060 ELOkoa (Iruñeko Orvina 'A') - Marcelino Sion, 2.380 ELOkoa (Iruñeko Oberena 'A').


1) e4, c5; 2) Zc3, Zc6; 3) g3, g6; 4) Ag2, Ag7; 5) f4, d6; 6) d3, Gb8; 7) Zf3, b5; 8) 0-0, b4; 9) Ze2, Db6; 10) f5, Zf6; 11) h3, c4 xa; 12) Eh1, d3; 13) d3, f5; 14) f5, Af5; 15) Zh4, Ad7; 16) Zf5, Af5; 17) Gf5, e6; 18) Gg5. Ikus koadroa. Txurien erasorako grinak itsutu ditu. Ez da toki ona gazteluarentzat. Saldu egin dute. 18) ..., Ef8; 19) Zf4, h6. Erdigunea beltzen peoiena da. Baina gaztelua erasotzeko lana txurien zuhurgabeziak eragin du.

20) Gg7, Eg7; 21) Zh5 xa, Zh5; 22) Dg4 xa, Ef8; 23) Dh5, Ze7; 24) Ae4, Db5; 25) Dh4, Zf5; 26) Df4, De5; 27) Af5, f5; 28) Df3, Gb5; 29) Eh2, Dd5; 30) Df1, Gc5; 31) Af4, Gc2 xa; 32) Eg1. Dama aldatzeko mehatxuak beltzen sarrera erreztu du. Posizioa menpean daukate. 32) ..., Eg7; 33) Ge1, Gb2; 34) Ge2, Ge2; 35) De2, Gc8; 36) Dd2, De6; 37) Ef2, Gc3; 38) Ae3, Ga3; 39) Db2 xa, Eh7; 40) Db4, Ga2 xa; 41) Ad2, De5.

Txuriek partida utzi zuten, beltzen indarra galarazi ezinean.

Ander, zer gertatzen zaizu?

Bazen behin Ander izeneko mutiko bat. Mutiko honek hamar urte zituen eta oso lotsatia zen. Baina lotsatia izateaz gainera, baita ere isila zen, bere arazoak ez zizkion inori kontatzen, dena berarentzat gordetzen baitzuen, eta ez zeukan iritzirik. Nahiko azkarra zen eta horregatik ikastolan ongi moldatzen zen, baina ez zuenez inorekin hitz egiten oso lagun gutxi zituen gelan; bikoteak egin behar baldin bazituzten eta bakoitiak baldin baziren beti bakarrik gelditzen zen. Ikastolako mutil gehienak berarekin sartzen



Josune Murillo

(BARAÑAIN)

izatea, eta Anderri zerbait galdetzen baldin bazioten zauriei buruz ixil-ixilik gertatzen zen ezer erantzun gabe. Gainera Ander egunetik egunera asko argaltzen zen, jango ez balu bezala, eta horrela zen, bere gurasoek diru guttia drogetan gertatzen zuten eta ez zioten Anderri jateko rik ematen. Behin klasean zegoela, ezin zuen gehiago jasan eta bapatean negarrez hasi zen. Bost minutu falta ziren klasea bukatzeko eta irakasleak klasea amaitutzat eman zuen. Ander irakaslearekin hitz egiten geratu zen klasean. Hasieran Anderrek ez zuen ezer esaten, ez zekien nola hasi baina azkenean hitz egiten hasi zen



ziren tontoa edo horrelako haundikeriak esanez. Horregatik irakasle guztiak mutiko honekin nahiko kezkatuak zeuden, eta behin baino gehiagotan bere gurasoei deitzen zieten arazoa aztertzeko. Anderren gurasoak ez ziren bere semearekin ezer ez larritzen eta arazoa konpontzeko ez zuten ezer egiten. Gainera, familia honen etxean arazoak zeuden; Anderren ama droga kontuetan sartuta zegoen eta asko drogatzen zen. Aitak, berriz, alko-

holarekin arazoak zituen eta egunero etxera mozkor zetorren. Etxera heltzean Anderrek beldurra sentitzen zuen baina ezin zuen ezer egin, aita eta ama joka hasten zitzaizkion eta nahiz eta Ander negar egiten hasi, ez ziren gelditzen.

Ander egunero klasera zauriz eta kolpepe beteta joaten zen. Lehengo astean denek uste zuten kolpe normalak zirela, ume batenak. Baina hirugarren astetik aurrera ez zen normala egunero kolpeak

eta bi ordu luze egon ziren. Anderrek irakaslearengana konfidantza zeukan eta honek laguntza eskatu zion. Anderrek nahiz eta hasieran oso konforme ez izan eta sinetsirik ez izan, azkenean bere gurasoak salatu zituen beraiengan tratatu txarrak jasotzeagatik eta dena ongi atea zen: Anderren gurasoak giltzapetu zituzten eta Ander familia batek semetzat hartu zuen. Orain hobeto bizi da eta berritsuago bihurtu da.

Galdutako tenorearen bila

Galdera: Elias Beorburu jaun dotorea. Inbuluzpelko mutil zahar eta itsusia naiz. Makina bat urtetan musu bat ere ez dut eman sikira, eta are gutxiago larrutan ibili. Egia esan, berrogei urte ditut eta orain arte ziplistik ere ez. Une honetan, Jaungoikoa eta Patua lagunak, Pekoetxetako neska zahar eta itsusi batekin harremanetan nabil. Nire galdera da, zer egin genezake galdutako tenorea berreskuratu ahal izateko? Besterik gabe, eta zure erantzunaren zain, adio.

Erantzuna: Inbuluzpeko mutil zahar eta itsusi adiskidea. Zure galdera oso interesgarri deritzot, askotan jazotzen den fenomeno

baita zurea. Nire eskarmentuaren arabera, zera esan diezazuket, oso egoera arrunta dela gure lehenagoko Baskonia maitean, baita gure mugez landa ere. Zenbat ez ote dira ezkondu berrogeita hamar urte pasata? Eta hala ere kapazak izan dira, gaztetatik hasiak diren askoren lanak gaintzeko. Zu eta zure Pekoetxetako neska zahar eta itsusiarren artean erabakitze gaia bera da. Nik, zientziagizon naizenez, Zientziak aditzera ematen duena baino ezin dizut esan. Gaurdanik hil arte, osotara 23.000 aldiz ibili beharko zenukete larrutan. Horrek esan nahi du finitu egin direa zuretako pilota partiduak, tourrak, musaldi luze horiek, uso ehiztal-



Elias Beorburu de Berriobehiti Jaun Dotorea

«Hala ere jakin behar duzu galdutako aukerak, Inbuluzpeko mutil zahar eta itsusi maitea, berreskurazekin direla».

diak, bertso afariak, lixibaz amuarra harrapaketak, eta neguko mozkorraldi zikliko horiek. Hala ere jakin behar duzu galdutako aukerak, Inbuluzpeko mutil zahar eta itsusi maitea, horiek berreskurazekin direla. Eta zenbat aukera ez ote-duzu galdu oraindino? Beste gauza bat. Zergatik ote duzu zure burua itsusi eta zahartzat? Pentsamendu ezkor horiek jorratu beharko zenituzke. Besterik gabe, eta zure galdera erantzuna geratu deneko esperantzan, adio.

Galdera: Larraizotzeko neska bat naiz. Bi senargai ditut. Bata indiano, zahar, aberats eta maite ez dudana. Bigarrena maizter, gazte, tipulajale eta maite dudana. Zeinekin esposatzen naiz?

Erantzuna: Larraizotzeko bi senargaidun neska. Zuk egia esan behar diezu, egia latza, hala bati nola besteari. Indianoak maite ba-

zaitu irudituko zaio zuk maite duzun pertsona batekin ezkondu behar duzula eta bestearengana joateko esango dizu. Maizterrak maite bazaitu irudituko zaio ez duzula zure edertasuna behiak deitzen itsustu egin behar eta indianoarengana igorriko zaitu. Bitartean zu afera luzatzen ari zara, eta hori oso komenigarria da. Gero kontutan hartu behar duzu zure aitamen iritzia, indianoaren aldekoa dudarik gabe; zure adiskideen iritzia, kasu honetan denetarik aurkituko duzu; eta zure amatxiren iritzia, maizterren aldekoa dudarik gabe. Indianoarekin ezkondu eta maizterra maitale hartzea ez da bat ere komenigarria. Hori infernua da. Hala ere, Larraizotzeko hizpideak aberastu nahi badituzu, eta jendeak elkarri zer kontatu izan dezan nahi baduzu, zuregatik egingo ez zenukeena, haiengatik egin ezazu.

Kultur aldizkariaren arloa porrot handien arloa dela diote, ametsena eta erorketena. Aste honetan aurkeztu da Nafarroan beste proiektu bat, baina kultur arloko oso alor mugatu bati buruzkoa, arte plastikoei buruzkoa hain zuzen ere. RNA izenekoak, lurraldean dauden erakusketa guztien erreferentzia izan nahi du, eta baita arteari buruzko eztabaidagune eta atalaia ere. Leihoa, finean.

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Begi-bistakoa da azken urteotan Nafarroako arte galeriek izan duten gorakada. Pinturak, eskulturak edo argazkiak erakusteko tokiak ondoak udazkenean bezala atera dira non-nahi, eta ohiko tokiei izen berriak gehitu zaizkie. Egun 50 inguru dira. Gehienak, gainera, erakunde ofizialetatik kanpo. Begi-bistakoa izan bada bertan egon diren tzentzat, are gehiago kanpotik etorritakoentzat. Horretaz oharturik atzerrian hainbat urtez bizi ondoren, Blanca Oria eta Juan Zapater kazetariak Nafarroan astetik atera sortzen zen informazioa biltzeko aukera ikusi zuten, eta aldizkari bat sortzeari ekin zioten.


«Arte plastikoei buruz zerbait atera nahi genuen» azaldu du Blanca Oria proiektuaren koordinatzaileak, «erabat utzita dagoelako. Arte galeria batera joanez gero ez dakizu inoiz ondoko galerian zer dagoen, ez baitaude katalogoak». Beraz, asmoa zehatza zen: ikus daitekeenaren gida izatea, galerietan dauden koadroen irudiekin eta horri buruzko komentario laburrekin.

Hurrengo pausoa finantzaketa zen. Horretarako, galerietara jo zuten, eta bere espazioa erostea eskaini zieten. Horrela, galeria bakoitzak ordaintzen zituen euren aldizkariak, eta horrek ziurtasuna ematen zion aldizkariari banaketa arloan. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan dute, eta publizitatea ere sartu da lehendabiziko alean, arte plastikoei lotutako publizitatea, beti ere.

Baina Nafarroan ikus daitekeen pintura gehienaren gida izateaz gain, kolaboratzaileei eta

iritziak eman nahi duen jendeari irekia izateko asmoa du RNAk, Oriak dioenez. «Ideia hau izango da jendeak izatea nahi duena. Izugarri gustatuko litzaiguke jendeak berriak bidali eta laguntza emango baligu, debateetan parte hartuko balu...». Horretarako dosierak egingo dituzte aldizkarian, eta lehendabiziko alean artearen irakaskuntzaren barruan Nafarroan dagoen eskaintzari buruz aritu dira Javier Zubiaur Principe de Viana erakundeko zuzendaria, Alfredo Sada elkartea eta Jose Antonio Eslava, Paco Polan eta Juanjo Akerreta pintoreak. Halaber, berrien saila ere zabaldu dute ba-

RNA, arte plastikoen leihoa



Aldizkariaren azala. Goian, Miguel Angel Campanoren 'Titulurik gabek' artelana, egunotan Arteclio arte galerian ikusgai dagoena.

rruan, Nafarroako artista guztien berriak sartzeko.

«Denei zabaldua eta inorena ez» aldarrikatu zuten bultzatzaileek aurkezpenean, eta horri lotuta dago arteari buruzko gai nagusiez sortu nahi duten eztabaidagunea. «Merezi dugun kultura ote dugu? Nahikoa eskaintza bada? Nafarroako Museoa bizirik al dago? Horrelako galderak paratu nahi ditugu mahai gainean, eta eztabaida sortu». Azken galdera horri lotuta, azpimarratzekoa da gaur egungo eskaintza nagusia arte galeria pribatuek eskaintzen dutela, eta Nafarroako Museoa aski aldenburik dagoela dirudi. «Jende as-

kok nahiko luke gune handi bat erakusketak egiteko, eta hori izango litzateke Museoa, baina nahi duten politika egiten dute hor, ez dago bizirik. Adibidez, ez dago hitzaldirik, solasmahaiak, mugimendu gehiago beharko luke».

Aldizkariak, galerien guneak eta eztabaidarako tokiak ezezik, euskarazko laburpenak ere badi-tu, Koldo Martinezek egindakoak, eta Hasier Etxeberriaren artikulua bat dakar lehen aleak, 'Artistaren patua (edo artearen merkatua nola den berdin edonon)' izenekoak. Hasteko, nahiko garai egokia aukeratu dutela ezin uka. Lehendabiziko alean Pablo Sorolla eta Equipo Croniciari buruzko erakusketekin topo egin dute, eta horrek aldizkariari pi-

Nafarroan badaude gauza interesgarriak eta oraintxe bada galerietan oso eskaintza polita. Hobe-tu daiteke, jakina, baina itxura ederra dauka».

Merezi dugun kultura ote dugu? Nahikoa eskaintza badago? Horrelako galderak paratu nahi ditugu mahai gainean».

sua emateaz gain, maila altua jarri diola ezin uka. «Jendeak horixe esan digu, baina aldizkaria egongo da erakusketen mailaren parean, ez beste inon». Lehen aleak, hain zuzen ere, begirada orokorra emateko aukera eman die, eta eskaintza polita dela diote. «Bazterrean utzita bi erakusketa nagusi horiek», dio Oriak, «badira gauza interesgarriak. Oraintxe bada Nafarroako Museoa Jose Maria Ascunceri buruzko erakusketa antologikoa, eta Arteclion dauden erakusketak ere interesgarriak dira. Hobe daiteke, jakina, baina itxura ederra dauka».

Aldizkariaren maketazioaz Jose Felix Collazos arkitektoa arduratzen da, eta hori da azpimarragarrienetakoa, dudarik gabe. Aldizkaria arte galerietan edo liburudendetan erosi daiteke, 300 pezetan, edo harpidetzaren bidez eskuratu ahal da.

«Eginbeharren premia inoiz baino handiagoa da egun»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Eduardo Gil Bera idazle tuterarraren 'El carro de heno' ('Sarale gurdia') azken saiakera liburua kaleratu berri du Pamiela argitaletxeak, Eusko Jaurlaritzak ematen duen Miguel de Unamuno gaztelaniazko saiakera saria jaso eta bi hilabetera. Txema Aranaz argitaratzaileak azaldu zuenez, Durangoko Azoka baino lehen plazaratu nahi izan dute liburua, eta horrek, ahalegin berezi eskatu badu ere, ez du inolaz ere lausotu Pamielaren ohiko dotorezia liburua tajutzean.

Narbarten aspaldian laketu zen idazle, itzultzaile eta saio-gilearen beste liburuetan bezala, zenbait gai errepikatu egiten dira saiakera honetan, denbora edo obedientziaren gaiak, esate baterako, ez baitira, bere irudikoz, liburu batean ahitzen. «Beste batzuetan ez naiz batere konforme gelditu gai hauei buruz neronek planteatutako moduarekin eta galderekin, eta berriro heltzen diet hemen».

Arazo hauen eta beste askoren zorro edo lotura nagusi gisa XVIII. mendeak ekarri zituen aitzinapausoak hartu ditu Gil Berak, edo hobeki esanda, aitzinapauso horien alde iluna. Idazlearen ustetan ukazina da mende horren garrantzia, baina aurrerapausoak ere alde txarrik bazutela azpimarratu du liburu honetan. «Zuzenbide Estatua, adierazpen askatasuna, askatasuna bera, XVIII. mendeko lorpenak dira, dudarik gabe, baina liburu honetan jorratu dut horren inguruan dagoen orokortasuna, aurrerapauso horiek izan dituzten ondorioak. XVIII. mendea dogmatismo eta erruduntasun konplexuaren gorazarrearen mendea da, eta gaur egungo gizartea oraindik horren ondorioa da. Iritzia izateko eskubidea, informaziorako eskubidea, oso lotuta daude iritzia emateko



Eduardo Gil Bera, liburuaren aurkezpenean.

«XVIII. mendea dogmatismo eta erruduntasun konplexuaren gorazarrearen mendea da, eta gaur egungo gizartea horren ondorioa da».

eta informatuta izateko beharrek. Are gehiago, azken hau da garrantzitsuena. Izan ere, gizakiaren eskubideen dekalogoak, gizakiaren betebeharen dekalogoak baita».

Gil Beraren ustetan, betebeharrak hauek gaixotasuna, egoera patologikoa sortu dute, alegia 'kontzientzia' deitua. «Zientzia eta arrazoiaren duarekiko gehiegizko miresmena oraindik indarrean dago gaur, eta horrek 'normaltasuna' gaitza sortu du. 'Gizaki normalak' iritzia izateko eta informazioa jasotzeko prest egon behar du beti, eta garai honetako dekalogoari men egiteak poza sortzen du jendearengan». XVIII. mendean sortu zen filosofia eta mundua ikusteko erak, bestalde,

obedientzia ekarri zuen, idazleak azaldu duenez. «Gizakiaren eskubideen mundu honetan, eginbeharren premia inoiz baino premiazkoagoa da, gizakiak eginbeharren premia handia duelako, hain zuzen ere. Ito egiten da bestela, errekatik kanpo nola amurraina. Baina eginbeharren dekalogoak hautsi nahi duenak beti ekartzen du beste bat ezartzeko».

Gai honetaz aparte, suizidioa, dirua, imaginazioa eta beste hainbeste gai ukitzen ditu tuterarrak, eta, hori dela kausa, «produktu exotikoa» saltzen ari zeneko inpresioa bazuela azaldu zuen, «guztiz onartutako topikoen aurka ari naizelako». Suizidioari buruz hala dio liburuaren pasarte batean. «Edonola hartuta ere,


hiltzeak uste dugun baino garrantzi guxiago dauka; norberak irabazia eta galdua dauka baliorik duen oro hiltzeko zorian dagoenerako, zerbait, berriro, galtzeko zorian dagoenerako. (...) Bizitzak ez du mugarik, ez hasieran ez amaieran, eta idurikatu ditugun ertzak bizitzaz egindakoak dira; bizitza dago haien parez pare, gainean, barruan eta atzean (...)».

Besteak beste, unibertsitatearen inguruan sortutako uste ustela aipatu zuen astelehenan egin zuen prentsurrekoan. «Unibertsitatea Erdi Aroko produktu bat da, orduko hiru oinarriak inperioa, eliza eta unibertsitatea zirelako. Bepizkunde garaian haustura bat izan zen unibertsitatearekin, eta pentsamendu-jendea ez zen inoiz izan unibertsitatekoa. Erasmus, Montaigne, Pascal, Leibniz, Hume, Spinoza, Voltaire, Diderot eta ez ziren unibertsitatekoak. Baina XVIII. mendetik aurrera pentsamendua unibertsitatearen kokatuta dagoela pentsatu da, eta hori topiko bat da. Aski meritu litzateke unibertsitatea bertan egotea eta pentsatzeko gauza izatea. Izan ere, unibertsitateak kanpo egon diren pentsalariak izan dira benetako pentsamendua sortu duten bakarrak, Nietzsche eta Schopenhauer, kasu».

Liburuaren titulua flandriar erranahiru bati dagokio —'bizitza gure aurretik igarotzen den sarale gurdia' bat da, non bakoitzak ahal duena hartzen duen—, eta bertan ez dira aipatu arazoei alternatibak eskaintzen, Gil Beraren ustez hori baita gaur egungo topiko faltsuetako bat. «Hain zuzen ere, zirkulu ustel hori da nik hemen azaltzen dudana. Nik azpimarratu nahi dut gauzak ez direla hain konplikatuak ez eta hain sinpleak ere. Hori da pentsalariaren eginbeharra. Soluziobideak ematea politikariaren eginbeharra da, ez gurea».

Eduardo Gil Bera

IDAZLEA



SOSLATA

Saiakerarik?

Ipuinak eta poesia argitaratu badi-tu ere, itzulpengintza eta saiakeragintzan murgilduta dabil aspaldi honetan Eduardo Gil Bera tuterarra. 'El carro de heno' bere azken lana ere arlo honetako da, nahiz eta berak sailkapen hauek gogoak ez izan. «Nik ez dut jeneroetan sinisten. Saiakera ideiak azaltzeko jeneroa dela? Ideiak nonahi izan behar dira, bai poesian, bai ipuinetan. Gauzak ez dira izan behar hutsak edo molde bakarrek».

Bere ustetan, idaztearen funtsezko eginbeharra «egiakzko galderak» planteatzea da. «Hori da, hain zuzen, zailena, baina hori egiteko poesiaz ere baliatu ahal zara, ni saiakeraz baliatzen naizen bezala. Saiakera idazteko jenerorik libreena dela diote, baina neretako jenero guztiak dira libre. Nobela bat eginen banu, hori izanen litzateke neretako libreena».

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

